

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

1015

Hutsen zuzenketa 458 zenbakiko iragarkian: 13/2009 Foru Agindua, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena, urtarrilaren 20koa; honen bidez bi eredu hauek onartu dira: 216 eredua (Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga. Establezimendu iraunkorrik gabe eskuratutako errentak. Atxikipenak eta kontura egindako sarrerak. Aitorpen-sarrera agiria) eta 296 eredua (Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrek. Atxikipenen eta konturako sarreraren urteko aitorpena).

Huts bat antzeman da 2009ko urtarrilaren 30eko 13 zenbakiko ALHAOn: 13/2009 Foru Agindua, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena, urtarrilaren 20koa; honen bidez bi eredu hauek onartu dira: 216 eredua (Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga. Establezimendu iraunkorrik gabe eskuratutako errentak. Atxikipenak eta kontura egindako sarrerak. Aitorpen-sarrera agiria) eta 296 eredua (Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrek. Atxikipenen eta konturako sarreraren urteko aitorpena).

1172 zenbakiko orrialdean, III. eranskinean, A idatz zatian -1 MOTAKO ERREGISTROA: AITORLEAREN ERREGISTROA-, honelaxe agertzen da:

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUAREN DESKRIPZIOA
1	Zenbakizkoa	Finkoa, "2".

Honakoa esan behar du:

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUAREN DESKRIPZIOA
1	Zenbakizkoa	Finkoa, "1".

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 6a.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua, JOSE LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

1010

47/2009 FORU AGINDUA, otsailaren 6koa. Honen bidez, Arabako Kanoe Federakuntzaren estatutuak onartzen dira

Dekretu honek ezarritakoa bete beharko dute kirol federazioen estatutuek, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren lehen xedapen iragankorrek xedatzen duenez.

Dekretu horren 65.2 artikulua xedatzen du Arabako kirol federazioen estatutuak Arabako Foru Aldundiko dagokion organoan aurkeztuko direla onartuak izan daitezen.

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak du eskumena kirol arloan.

Estatutu berriak onartzeko eskatu zuen Arabako Kanoe Federakuntzak 2008ko irailaren 19ko 15697 idazkiaren bidez. Estatutu horiek, 2007ko uztailaren 10eko Aparteko Batzar Orokorrean onartuak, 16/2006 Dekretura egokitu dira.

Horregatik, dagozkidan ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengoa. Arabako Kanoe Federakuntzaren estatutuak onartzea. Estatutu horiek Euskadiko Kirol Federazioen gaineko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretura egokitu dira. Estatutu horiek Foru Agindu honi erantsita daude.

Bigarrena. Foru Agindu hau eta eranskina Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hirugarrena. Eusko Jaurlaritzaren Kirol Entitateen Erregistrora bidaltzea Foru Agindu honen bidez onartutako Arabako Kanoe Federakuntzaren estatutuen kopia.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 6a.– Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua, LORENA LOPEZ DE LACALLE.

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

DIRECCIÓN DE HACIENDA

1015

Corrección de erratas del anuncio núm. 458 relativo a la Orden Foral 13/2009 del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de 20 de enero, por la que se aprueban el modelo 216 del Impuesto sobre la Renta de no Residentes. Rentas obtenidas sin mediación de establecimiento permanente. Retenciones e ingresos a cuenta. Declaración documento de ingreso y el modelo 296 del Impuesto sobre la Renta de no Residentes. No residentes sin establecimiento permanente. Declaración anual de retenciones e ingresos a cuenta.

Advertido un error en el texto publicado en el BOTHA número 13 de 30 de enero de 2009, Orden Foral 13/2009 del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de 20 de enero, por la que se aprueban el modelo 216 del Impuesto sobre la Renta de no Residentes. Rentas obtenidas sin mediación de establecimiento permanente. Retenciones e ingresos a cuenta. Declaración documento de ingreso y el modelo 296 del Impuesto sobre la Renta de no Residentes. No residentes sin establecimiento permanente. Declaración anual de retenciones e ingresos a cuenta, se procede a efectuar la oportuna rectificación:

En la página 1172, Anexo III apartado A TIPO DE REGISTRO 1: REGISTRO DE DECLARANTE, donde dice:

POSICIONES	NATURALEZA	DESCRIPCIÓN DEL CAMPO
1	Numérico	Constante número 2

debe decir:

POSICIONES	NATURALEZA	DESCRIPCIÓN DEL CAMPO
1	Numérico	Constante número 1

Vitoria-Gasteiz, a 6 de febrero de 2009.– El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– El Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTES

1010

ORDEN FORAL 47/2009 de 6 de febrero, que aprueba los Estatutos de la Federación Alavesa de Piragüismo.

El Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del País Vasco señala, en su disposición transitoria primera, que las federaciones deportivas adaptarán sus actuales Estatutos a lo dispuesto en el citado Decreto.

El artículo 65.2 del citado Decreto señala que los Estatutos de las federaciones territoriales deportivas alavesas se presentaran para su aprobación en el órgano competente de la Diputación Foral de Álava.

Correspondiendo la materia de deportes de la Diputación Foral de Álava al Departamento de Euskera, Cultura y Deportes.

Con escrito número 15697, de fecha 19 de setiembre de 2008, la Federación Alavesa de Piragüismo solicita la aprobación de los nuevos Estatutos adaptados al Decreto 16/2006, aprobados por la Asamblea General Extraordinaria celebrada el 10 de julio de 2007.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen.

DISPONGO:

Primero. Aprobar los Estatutos de la Federación Alavesa de Piragüismo adaptados al Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del País Vasco, que se incorporan como anexo a esta Orden Foral.

Segundo. Publicar la presente resolución y el anexo en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Tercero. Remitir copia de la aprobación de los Estatutos de la Federación Alavesa de Piragüismo aprobados por esta Orden Foral al Registro de Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de febrero de 2009.– Diputada de Euskera, Cultura y Deportes, LORENA LÓPEZ DE LACALLE.